BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# TMB-ren garbiketeak eta desinfekzinoak hilabete bi iraungo ditu, eta "atoan" hasiko da

Bilbon, 2014ko maiatzaren 8an

Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru Diputatua Batzar Nagusien aurrean agertu da gaur goizean, oposizinoko taldeek (EH Bilduk, PSE-EEk eta PP-k) eskatuta, Tratamendu mekaniko biologiko lantegiko (TMB) beharginengan eragina izan eban "Q sukarraren" epidemia agerraldiaren nondik norakoaren barri emoteko. Arazo ha zala eta, gaur hilebete lantegiaren jarduerea eten egin behar izan zan. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, atzo bertan, kasua aztertzen ari dan eta Osalaneko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko eta Garbiker Foru Soziedadeko arduradunek osatzen daben batzorde teknikoaren bilera batean, instalazinoak garbitzeko eta desinfektetako beharrak TRAGSA enpresaaren esku ixtea erabagi zan. Behar horreek "atoan" hasiko dira eta, aurreikuspenen arabera, "hilebete biko epea hartuko dabe".

Behar horreek egin ostean, eta lantegia barriro zabaldu aurretik, egin beharreko azterketak eta analitikak egin beharko dira, TMB-aren behin behineko itxieraren arduraduna dan "Coxiella burnetti" bakterioa guztiz desagertu dala egiaztau ahal izateko. Aldundiak, beharginen artean ERE bat planteetea baztertzeko "exijitu deutso" jardueraren esleipendunari, UTE Arraiz ABEE-ari, eta geldialdia aprobetxau daiela "prestakuntza plan bat" martxan jarteko.

Hori gertatzen dan bitartean, Madariagak iragarri dau "prebentzinorako eta kontrolerako neurri gehiago eta zorrotzagoak hartuko dirala" lantegian, arrisku gitxiago izateko. Aldundiak kontrol barriak jarriko ditu sarreran, eta debekauta egongo da TMB-ra "nekazaritza inguruetatik" etorritako hondakinak ailegetea. "Uri handietako" uri hondakin solidoak baino ez dira bertan landuko. Ganera, Foru Aldundiak herritarren sentsibilizazioan sakonduko dau, hondakinen kudeaketan erantzukizun handiagoa egon daiten.

TMB lantegia, animalia jatorria daukan eta pertsonei airetik transmitiduten jaken Q sukarrez kutsatu zan, hondakin sisteman gizakiak kontsumiduteko egokiak ez ziran eta etxeetako zabor edukiontzietan itxi ziran animalien hondakinak sartu ziranean. Ingurumeneko Foru diputatuak adierazo dau "gatxa" dala kutsaduraren jatorria zein izan zan jakitea, ezinezkoa dalako hondakinen "trazagarritasuna" zehaztea, baina "susmoak badagozala" esan dau.

Madariagak esan dauenez, danok gara "Q sukarraren" jatorria izan diran animalien hondakinak ixteko orduan modu egokian jokatu ez dauen "pertsona baten edo gehiagoren" portaeraren biktimak. Osasun agintariek "zortzi kasu" egiaztau ebezan lantegiko 131 langileen artean. "Laneko osasun bilakatu dan osasun publikoaren kontrako atentatua" izan dan "legez kanpoko eta kontrolik bako" jarrerea izan da, esan dau Madariagak.

Aukeraz baliauz, diputatuak gogoratu dau behiak, ahuntzak eta ardiak etxean hiltea "debekauta" dagoala, "ilegala" dala. Animaliak hiltegi ofizialetan hil behar dira, eta gizakien kontsumora bideratzen ez diran eta animalia jatorria daukien azpi-produktu guztien deuseztapena, horretarako baimena daukien enpresen bitartez egin behar da.

INPROBISAZINOA

Oposizinoak, Aldundiak “inprobisazinoa” eta “aurreikuspen faltea” erakutsi dauela esan dau, neurri handi batean, ez dalako egon lantegian animalien hondakinak sartzea eta horren ondorioz langileak kutsatzea saihesteko aurretiazko protokolorik. “Badakigu dana ezin dala kontrolau, baina segurtasuneko protokoloak egotea beharrezkoa da”, adierazo dau Asier Vega EH Bilduko batzarkideak.

Iñaki Egaña bozeroale sozialistak bat egin dau eskari horregaz, eta esan dau Arraizen sortutako egoerak protokolo horreek sortzeko balio behar dauela, eta protokoloak “eguneratu egin behar dirala, ondo prestautako langileakaz”. PP-ko Arturo Aldecoak gonbidapena egin deutso Aldundiari, TMB-n itxitako materialaren jatorria ezagutzeko ikertzen jarraitu daian.

EAJ-PNV taldeko María Presa batzarkideak azpimarratu dauenez, arazo horren “arduradun bakarrak” etxeko zaborrerako ontzietan animalien hondakinak bota dituen pertsonak dira. Aukeraz baliauz aholku bat emon gura izan deutso gizarte osoari, sortzen dan zaborra boteteari buruz dagoan araudia bete daitela eskatuz.

NOTA DE PRENSA

# La limpieza y desinfección de la TMB durará dos meses y comenzará "de inmediato"

Bilbao, a 8 de mayo de 2014

El diputado foral de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha comparecido esta mañana en las Juntas Generales, a petición de todos los grupos junteros de la oposición (EH Bildu, PSE-EE y PP), para explicar el desarrollo del brote epidémico de “fiebre Q” que afectó a trabajadores de la planta de tratamiento mecánico biológico (TMB) y que obligó a paralizar la actividad hace hoy un mes. El responsable foral ha anunciado que ayer mismo, en una reunión de la comisión técnica que lleva el caso, compuesta por responsables de Osalan, Departamento de Salud del Gobierno Vasco y la sociedad foral Garbiker, se decidió adjudicar las labores de limpieza y desinfección de las instalaciones a la empresa TRAGSA. Estos trabajos comenzarán “de inmediato” y se prolongarán “previsiblemente durante un periodo de dos meses”.

Tras estas labores, y antes de proceder a la reapertura de la planta, se deberán realizar las analíticas correspondientes con el fin de comprobar la erradicación de la bacteria “Coxiella burnetti”, responsable del cierre provisional de la TMB. La Diputación “ha exigido” a la adjudicataria UTE Arraiz que descarte el planteamiento de un ERE entre los trabajadores por el cese de actividad y que aproveche este parón para poner en marcha un “plan de formación”.

Mientras esto sucede, Madariaga ha anunciado que se tomarán “mayores medidas preventivas y de control” en la planta para minimizar los riesgos. La Diputación establecerá nuevos controles de entrada y prohibirá la llegada a la TMB de residuos procedentes de las “zonas más rurales”. Se tratarán únicamente residuos sólidos urbanos de "grandes municipios". Asimismo, la institución foral incidirá en la sensibilización ciudadana para que haya una mayor responsabilidad en la gestión de los residuos.

La planta TMB quedó contaminada con fiebre Q, de origen animal y transmitida a las personas por el aire, al entrar en el sistema de residuos restos de animales no aptos para el consumo humano que fueron depositados en contenedores de basura doméstica. El diputado foral de Medio Ambiente ha afirmado que es "difícil" detectar cuál pudo ser el origen de la contaminación, al no poderse determinar la "trazabilidad" de los restos, aunque ha indicado que "hay sospechas".

Madariaga ha manifestado que todos somos víctimas del comportamiento de una “persona o personas” que no han actuado de forma correcta a la hora de depositar unos restos de animales que han sido el origen de la "fiebre Q". Las autoridades sanitarias confirmaron “ocho casos”, entre los 131 trabajadores de la planta. Ha sido una actitud "ilegal e incontrolada" que ha constituido "un atentado contra la salud pública que ha derivado en un problema de salud laboral", ha dicho Madariaga.

El diputado ha aprovechado la ocasión para recordar que el sacrificio domiciliario de bovinos, ovinos y caprinos es “ilegal”. La matanza debe efectuarse en mataderos oficiales y la eliminación de todos los subproductos de origen animal no destinados al consumo humano debe ser eliminado a través de empresas autorizadas.

IMPROVISACIÓN

La oposición ha acusado a la Diputación de “improvisación” y de “falta de previsión”, en gran medida por la inexistencia de un protocolo previo que evitase la llegada de restos de animales a la planta y el contagio posterior entre el personal. “Admitimos que todo no puede ser controlado, pero debe haber protocolos de seguridad”, ha manifestado Asier Vega, apoderado de EH Bildu.

A esta petición se ha unido el portavoz socialista Iñaki Egaña quien ha sostenido que la situación generada en Arraiz debe servir para crear estos protocolos, y que los mismos sean “actualizados y con personal formado”. Arturo Aldecoa, del PP, ha animado a la Diputación a seguir investigando para conocer el origen del material depositado en la TMB.

Por su parte, la juntera del PNV María Presa ha subrayado que los "únicos responsables" de este problema han sido las personas que han tirado restos de animales a los recipientes para la basura doméstica. Ha aprovechado el debate para lanzar una recomendación a la sociedad pidiendo que se cumpla la normativa en lo referente al depósito de la basura que se genera.